

Haur parkeak estaltzeko parte-hartze prozesua

Andoaingo Udalak herrikideen parte-hartzearekin erabaki nahi du estali beharreko parkeen kokapena, apirilaren 23tik 27ra deitu duen bozketa garaian / 7

Urnietako Gure Esku Dago taldeak 250 herrikideren parte-hartzea eskatu du, ekainerako / 6

Urnietako Poxta Zahar gazte elkarteak 15. urteurreneko festa ospatuko du, asteburu honetan / 16



Kazetaritzaren mugarriak sarituko dituzte aurten

'30 urte, 11 mugarri' izenburuean, Rikardo Arregi kazetaritza sarien prozedura berri, eta sari-banaketa ekitaldia udazkenerako iragarri dute / 8

euskara bada errenta

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

APRILAREN 6TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:

<http://euskara.buruntzaldea.eus>
Albisteak elkarbanatu eta opariak eskuratu!
Andoain / Astigarraga / Hernani /
Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
UDAL EUSKARA BATZORDEAK



Unaiak eta behiak

Leitzalarreko unaiak, 1683-1771 da Patziku Perurena idazle goizuetarrak burutu duen azken ikerlana. Liburuak, funtsean, argi adierazi nahi du ardia Leitzalarreko sarobeetan nagusitu aurretik, XVII eta XVIII. mendeetan behia zela nagusi

Xabier Lasa ANDOAIN

Leitzako udaletxean aurkeztu zuten liburua joan zen astearte iluntzean, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna argitaratzaile izanik. Idazlea berak eta Jon Unanue Larramendi Bazkuneko lehendakariak parte hartu zuten aurkezpen ekitaldian.

Unanuek adierazi zuenez, "Euskal Herriaren iruditerian ongi finkatuta daukagu artzainaren eta artaldearen irudia gure mendi eta larreetan barrena, antzinako gizartearen ia funtsezko ogibide gisa. *Leitzalarreko unaiak* liburu honetan, ordea, Patziku Perurenaren tesi ausart bezain agiriz ongi hornitua aurkezten dugu, non argi eta garbi azaltzen den Leitzalarreko sarobeetan garai batean ez zirela ardiak bazkatzen, behiak baizik, nola Leitza bertakoak hala inguruko herrietakoak, edo Baztan aldetik zein Gipuzkoako Beterritik ekarritakoak ere, eta ardia oso berandu arte ez zela sartu hemen, askok menderen mendetatik bertakoa zelauste izan arren...".

Perurenak ohi duen zorroztasunez, datu harrigarri ugari bildu ditu ikerlanean; besteak beste, XVII. eta XVIII. mendeetan Gipuzkoa aldeko Andoain, Urnieta, Aduna, Amasa, Usurbil eta Zizurkilgo baserri aberatsetatik ehundaka behi eramaten zituztela urtero, gehienbat uda sasoiaren, Nafarroako Leitzalarre, Aritz eta Akango mendietara, bertako sarobeetan bazkatzera. Horretarako, larre-saria eta mugasariak ordaindu behar izaten zituzten baserriar jauntxoek. "Leitzalarrerako joera horrek etaazienda itzel horien joan etorriak gainbehera egin zuen XVIII. mendean", gaineratu zuen Unanuek.

Datu historikoak, etnografikoak eta filologikoak aztergai hartuta, behiak, eta ondorioz zezenak, Leitzaran/Urumea aldeko herriotan izan duen garrantzia erakusten du liburuak, nola eguneroko bizimoduan hala ospakizun giroan ere.

Artxiboak arakatzetik bildutako informazio jakingarria

Perurenak, ikerlanaren gaineko makina bat xehetasun azaldu zituen Leitzako udaletxean egindako aurkezpenean. Ikerlanaren sorburuaz jardun zuen lehenbiziki. Hain zuzen ere, Leitzako udal artxiboan aurkitu zuen "Cuentas de Vaqueros años 1683 a 1771" kontu-liburuak eman zion bidea liburuaren lehen zatia landu zezan. "Udal liburua gairik gai desglosatzea izan da nire lana, gaurko irakurleak orduko usadioaren berri errazago jaso dezan. Unaien liburu honek, beste gauza askoren artean erakusten digu, Baztango eta Gipuzkoako Beterriko jauntxoek nola ekartzen zituzten beren behiak Leitzalarreko sarobeetara, eta usadio horrek nola sortzen zuen hainbeste herrien arteko giza-harremana, Azpilikuetakoa herritik hasi eta Igeldo auzorainoko guztian".

Mende beteko giza harreman oparo horren lekuko, Irurritako Perurena etxetik Leitzara unai etorritako Migel Perurenaren ibilerak sortu zitzaizkiola artxi-boetako arakatze lanetan, adierazi zuen Patziku Perurenak.

"SAROBETAN GARAI BATEAN EZ ZIREN ARDIK BAZKATZEN, BEHIK BAIZIK"

JON UNANUE, LARRAMENDI BAZKUNA


"Ez baitzen alferrik gure Iñaki Perurena famatuaren odoleko. Bai, bai, harri-jasotzaile ez ezik, euskal labeldun zekor-hazle eta harakin ere baden Iñaki famatuak ere, Baztanetik Leitzalarretera etorritako unai harekintxe finkatu zituen lehen erroak Leitzan".

Zezenak plazan Goizuetan eta Leitzan

"Zezenak plazan Goizuetan eta Leitzan 1578-2017" izenburua daraman atal berezia dakar liburuak. Herri kirolak (harri-jasotzea, aizkora, sega, estropadak...) euskal jendarteak eguneroko langintzak joko bihurtu eta plazetara eraman duela gogoratu ostean, zezenekin ere antzeko prozesua gertatu dela adierazi zuen Perurenak. "Ezin nuen bazterrean utzi plazako zezenen gaia, nolabait esan, unaien lana festa bihurtu duen jokorik zaharrena eta errotuena izan baita gure herrietan, mende mende. Aurrena ahaztu eta gero gehisko liluratu, behar bada; izan ere, larre-behiez eta unaiak izan den ikerlan batek izan zezakeen bukaerarik ederrrena zela ikusi bainuen plazako zezen-festa. Baina argialdi horrek Leitzalarretik Anizlarretera eraman nau, eta horregatik "Goizueta: zezenak plazan (1601-2017)" izeneko atala, honetan Leitzak ez bezalako sona izan duela jakinik Goizuetak". Azken iritzi hori indartzeko, honako kantua berriki zuen: "Goizuetan badirade zezenak Espainian diraden hobekak / zizti ti zazta ezpatarekin hiltzen ez direnak".

Trilogia baten lehen zatia

Perurenak aitortu zuenez, asteartean udaletxean aurkeztu zuen liburua azken urtetan esku



Patziku Perurena idazlea eta Jon Unanue Larramendi Bazkuneko lehendakaria. AIURRI

artean darabilen trilogia baten aurreneko zatia da. Iraganeko euskal munduaren garapen historikoa kronologikoki kontatzen du trilogia horrek. Plazaratu den liburuak, Erregimen zaharreko jauntxoaren sarobe-behi-unai bazkatze sistema eta horren akabera deskribatzen du. Bigarrenekoak, aipatu akaberak herri bazterretan eta mendi hegaletan arta-lurren eta baserrien sorrera azalduko du. Hirugarrenak, azkenik, herri inguruetan gertatu zen baserri eta luberrien zabalkunde horren ondoren, haragoko goi-mendietan behia

"LEITZALARREKO JOERAK GAINBEHERA EGIN ZUEN XVIII. MENDEAN"


PATZIKU PERURENA, IDAZLEA

urritu eta ardia gailentzeak ekarri zuen ardi-borden sorrera emango du aditzera.

Patziku, saiakeragile bikaina

Jon Unanuek saiakeragile gisa Perurenak euskal ikerkuntzan irabazia daukan tokia aldarrikatatu nahi izan zuen. "Patziku aski ezaguna literaturan, argitaratu dituen lanengatik ez ezik, saiakeraren arloan egin dituenengatik ere. Leitza, Goizuetan eta Nafarroako artxiobotan zer suma eta zer ikertzeari ekin dio azken urtetan. Nere lagun zahar batek esango lukeen bezala, artxiobotako pozo beltza probatu du eta behin hori dastatuta, artxiobotan deia jasotzen ari da behin eta berriro".

Unanuek Perurenaren ikerlari estiloa nabarmendu zuen. "Estiloa eta ausardia ditu azpimarratzekoak. Batzuetan agian



ez du asmatuko, baina jakintza handia erakustez gain, ikerketarako intuizio ikaragarria dauka. Eta ausarta da; iruditzen zaionean jakintza aitortuagoko ikerlari batek gauza bat esan duela, baina horrek kirrinka egiten diola, gaiari helduko dio eta berak aztertutakoa botako du.

Perurenak egin dituen saikera liburuak aipatu zituen Unanuek. Besteak beste, *Goi-zuetan bada gizon bat. Trabukoren kantako misterioak* izan zuen hizpide. "Hartan bezala, gaurkoan aurkezten dugun li-

buruan ere estilo hori azaltzen zaigu, garbi. Liburuako lerroetan barrena ez du bakar-bakarrik ikertu duena kontatzen, baita ere, askotan, hitzak, izenak, esamoldeak... aipatzen dizkio irakurleari. Amua jartzen dio. Azken batean, lan ederrak argitaratu ditu; gozatzeko lanak utzi ditu; begiratu batean astunak direla ematen dutenak, dokumentazio asko dakartenez gero. Baina denbora hartuz eta pixkanakako irakurketa eskainiz gero, konturatzen da bat ikaragarritzko lezioak ari dela zabaltzen Perurena".

"PATZIKU PERURENAK ESTILOA ETA AUSARDIA DITU AZPIMARRATZEKOAK"

JON UNANUE, LARRAMENDI BAZKUNA

"EZIN NUEN BAZTERREAN UTZI PLAZAKO ZEZENEN GAIA"

PATZIKU PERURENA, IDAZLEA

Liburua eskualdean salgai

Perurenak, ohi duen bezain zehatz, behiak eta ondorioz zezenak Leitzaran/Urumea aldeko herriotan izan duen garrantzia erakusten du, nola eguneroko bizimoduaren hala ospakizun giroan ere. Horretarako, datu historikoak, etnografikoak zein filologikoak azterkizun bihurtzen ditu Patzikuk, bere buruari etengabe

kontu eskatzen dionaren zorroztasunaz. Ikerketa burutu ahal izateko, Patziku Perurenak 2011. urtean irabazitako Manuel Larramendi Ikerketa Saria baliatu du.

Liburua dagoeneko Aiurrin salgai dago, eta hurrengo egunetan baita Andoaingo liburu-denda ezberdinetan ere. Prezioa 25 eurokoa da.



m
Mondragon
Unibertsitatea

**GURE
IKASLEEN
AHOTAN**

"Kirola maite duen batentzat kirola eta ikasketak elkarrekin burutzea bideragarria da".

Andoni Ugalde, pilotari profesionala zelarrik, graduatu zen Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritzan, Mondragon Unibertsitatean. Artikulu honetan kontatu digu nola uztartu dituen ikasketak eta kirol profesionala.



Kirola eta ikasketak biak ea ongi uztartu daitezkeen zailtasun jarri ohi dugu maiz. Batez ere, zailtasun horiek areagotu egiten dira hemezortzi urteko gazte batek unibertsitateko edo goi mailako ikasketak kirol jardunarekin batera eraman nahi dituenean. Egoera horren aurrean, gazteak buruhauste ugari izaten ditu ea gai izango ote den biak ongi aurrera eramateko, edota kirola alde batera utzi beharko ote duen, ikasketetan zentratu ahal izateko.

Nire kasuan, hemezortzi urterekin garbi nuen ingeniaritza burutu nahi nuela eta Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza gradu ikastea erabaki nuen Mondragon Unibertsitatean. Aldi berean, garbi nuen kirol jardueran, nire kasuan esku pilota, ez nuela alde batera utziko. Garai horretan, Aspe eskupilota enpresa profesionalarekin entrenamenduak egiten hasia nintzen eta ez nion ez pilotari ez eta ikasketei uko egin nahi. Honela, ingeniaritza hastera erabaki nuen, pilotari ibilbidea alde batera utzi gabe.

Erabaki hori hartu eta, konturatu orduko, nire bidea hasi zen. Lehenengo etapen, gizariek unibertsitateko urterik zailena bezala definitzen duen lehenengo urtearekin egin nuen topo. Lehenengo urtea gogorra egiten

da, batez ere, aldaketan urtea izaten delako: ikaste metodologia aldatu egiten da, ikaskide berriak, bizimodu berria, etab. Honela, lehenengo urte erdia burutu ondoren, ohartu nintzen lana eguneratuta emanez gero, kirola eta ikasketak ongi uztartu daitezkeela. Are gehiago, bietako bat alde batera utzi gabe, bietan emaitza onak lortzeko aukera ere bazezgoela ikusi nuen.

Modu horretan, ikasketen eta pilotaren arteko oreka aurkitzen joan nintzen. Pilotako entrenamendu edota partida soil bati uko egin gabe, ikasketak eta pilota elkarren arabera antolatzen joan nintzen. Asteaz zehar ia egunero burutzen nituen entrenamenduak eta asteburuetako partidak ikasketekin bideratu ahal izateko, antolamendu orekatu batekin konstante izatean dago gakoa. Klasean lantzeaz gain, garrantzitsua da entrenamendu eta partidetarik at geratzen den denbora ongi kudeatzea; klasean landutakoa barneratzeko tarteak hartuz eta noizbehinka distrakzioak bilatuaz, hala nola, ikaskide edo herriko lagunekin egoteko tartetxoak hartuz. Era berean, aipatu behar da Mondragon Unibertsitateko metodologiak lana eguneratua eramaten eta lan pilaketak saihesten laguntzen duela.

BALORE BALIAGARRIAK

Bide horretan jarraituz, ingeniaritzako 3. mailan ASPE enpresak pilotari profesional gisa kontratatu ninduen. Hala ere, esku pilotan ireki eta garatu nuen bideko ametsa gauzatzeari lortu arren, argi nuen ingeniaritzan hasitako bidea ere bukatu egin nahi nuela. Berriro ere pilota eta ikasketen arteko oreka bilatzen joan nintzen. Bestalde, nire kirolari egoerari egokituak gradu amaierako lan bat egin ahal izateak bidea asko erraztu zidan. Eginiko esfortzuaz eta bilaturiko orekaz gain, ikaslagunen, unibertsitatearen eta Aspe-ren laguntzaz, ingeniaritzaren bidea amaitzea ere lortu nuen.

Hasierara bueltatuz eta nire kasuari errepertuz, kirola maite duen batentzat kirola eta ikasketak elkarrekin burutzea bideragarria izateaz gain, aukerarik onena dela iruditzen zait. Unibertsitateko etapa kirolarekin uztartzeak hainbat balore transmititzen ditu; hala nola, diziplina, antolamendua, ordena, sakrifizioa, konstantzia edota arduraren, esate baterako. Balore horiek guztiak baliagarriak dira norbere ikasketen prozesuan eta kirol ibilbidea hobetzeaz gain, norberaren garapen pertsonal aberatsago bat aurrera eramateko.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

Heriotza eta bizitza, urrun bezain gertu

“Heriotza bera baino, askoz okerragoa da heriotza gertu dagoenaren sentsazioa”. Aspaldi entzun nuen esaera hori izenburuaz gogoratzen ez naizen pelikula txarren batean. Baina egia handia dela esango nuke. Heriotza klik bat delako, instant bat. Aurreko momentu, ordu eta egunak ez dira samurrak izango, ziurrenik. Ziurrenik, diot, nik ez dakidalako nolakoak diren une horiek. Ez naiz heriotzaren atarian egon, gogoratzen naizenik behintzat. Itsasoan itotzear behin, horretaz gogoratzen naiz. Susto latza hartu nuen. Pentsatu nahi dut jende gehientsuenak ere ez duela sentitu, ez dakiela zer den heriotzaren atarian egotea.

Eta hobe horrela. Mundu moderno honetan gizakiak ulertu, onartu, azaldu ez duen zerbait badago, heriotza baita. Ez gaude prest heriotzari aurre egiteko, eta ez gara egongo. Ez noski, hiltzen dena, baina ezta hiltzen den pertsonaren hurbilekoa ere. Etortzen da, eta zama horrekin bizitzen zara. Ez duzu inoiz erabat gaintzen edo ahazten. Jakin nahiko nuke heriotza ikusi, sentitu, sumatu duen norbaitek halakorik gaintu, ahaztu edo ulertzen duen. Baina ez da lan erraza. Aurrena, halako egoeran egon den norbait bilatzea. Ondoren, horri buruz galdetzea. Galdera deserosoak baitira...

Jokin Lizeaga hil egin zen Picos de Europa mendikateko zulo batean. “Bi aldiz hil nintzen”, esan zuen kazeta honetan. Uler dadila ‘hil’ hitza, Lizeaga gurean baitago, oraindik, zorionez. Sinesteko moduko hitzak dira, Lizeaga ez baita adierazpen

GIZAKIAK ULERTU, ONARTU, AZALDU EZ DUEN ZERBAIT BADAGO, HORI HERIOTZA DA

Urnietako mendi lasterkariak ez zuen halakorik gertatuko zitzaionik espero. Ez berak, eta ez inork. Ezinezkoa baita heriotza aurreikustea, heriotzaren atarirako prestatzea.

Horregatik, eta zuen, irakurleen baimenarekin, aholkutxo bat: Bizi, gozatu, ekin, eragin, jardun... Bizitza bakarria baita! Charles Chaplinek aspaldi jarri gintuen arrastoan: “Badago heriotza bezain saihestezina den zerbait: bizitza!”.

morbosoak egin zalea, komunikabideen arreta musu-truk esnatu zalea. Infernuko zulo hartan bizi, sentitu izan zituenak azaldu ditu han eta hemen, ahobizarririk gabe, okindegira joan eta ogia erosten ari denak “gaur eguraldi kaskarra” dago esaten duenean bezala. Natural. Umil.

ALDARRIA

Anbulatorioko langileen protesta

Apirilaren 12an, Lehen Arretaren eguna zela baliatuz, Andoaingo ambulatorioko langileek ordu laurdeneko geldialdia egin zuten, EAEko gainerako ambulatorio eta osasun etxeetan bezalatsu. *Lehen Arreta Arnasberritzen* ekimenaren deialdiari erantzun zioten, era horretan. Osakidetzako zenbait langilek sustatu du ekimena, Lehen Arretaren kalitatea Euskadin jasaten ari den gainbeheragatik kezkatuta. 2017ko urrian jaio zen, eta dagoeneko Osakidetzako bostehundik gora profesionalen atxikimendua bildu du. Hainbat aldarrikapen dituzte egiteko: Aurrekontuetan osasun arloko murrizketak salatzea; langileek beren zereginak txikun egin ahal izateko



egunero dauzkaten zailtasunak ikusgarri egitea; egun, indarrean den kontratazio politika salatzea; Lehen Arretaren garrantzia aldarrikatzea; Lehen Arretaren erabilera urtez urte gorantz doala gogoraraztea; Gertukoa, jarraitua, integrala eta koordinatua izango den arreta defendatzea... Aldi berean, proposamenak egiten

dituzte: goi mailako ekintzak bultzatzea (artapena, formakuntza, irakaskuntza, arreta komunitarioa, ikerketa...); Lehen Arretako langileen kontratazioa hobetzea, eredu kolaboratzailea ezartzea (familia medikuen eta espezialisten artean), Lehen Arreta prestigiatzeko estrategiak diseinatzea...

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebeze ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALIATUAK: ALIATUAK, nesteez, TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
 ANDOAINGO UDALA, Urnietako Udala
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:
 EUSKO JAIERAREN GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia
 ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.
 2017 Bitkarn

PROTAGONISTA

“Igandeko aurkezpen ekitaldia berezia izango da”

ALBERTO IRAZU "ROCKA PUNTUA!!" LIBURUAREN EGILEA

Erredakzioa ANDOAIN

Bertsolaritzaren eta gaztetxeen arteko harremana aztertu duen liburua aurkeztuko du Andoaingo gaztetxean, igande honetan, 18:00etatik aurrera. Segidan, mahai-ingurua helduko da gaztetxe zaharreko kideekin, musikariek eta Puntuka bertso-eskolako kideekin. Solasaldiak kito egin ostean, 19:15ak aldera, bertso saioaren txanda izango da. Eta saioari amaiera emateko, Pekozza United taldeak musika kontzertua eskainiko du. **Nondik nora joango da zure aurkezpena?**

“Rocka puntua!” idaztea bidaia modukoa izan da, zenbait fanzine eta liburu, abesti eta bertsoaren barrena egindako bidaia bat, hain zuzen. Beraz, nire asmoa horixe da: Gaztetxera etortzen den jendeari bidaia hori nirekin batera eginaraztea. Horretarako fanzineak, binilozko disko zaharrak eramango ditut Gaztetxera.



Alberto Irazu andoaindarra, liburua Donostiako KMn aurkeztu zuenean. AIURRI

Liburuan aitzindarizat jotzen duzu Andoaingo Gaztetxe zaharra, rocka eta bertsoa uztartzeko saiakeran...

Orain ahaztuta gaude, baina Bap! taldeak lauiko handi bat kantatuta hasi ohi zituen bere

hasiera-hasierako kontzertuak, eta Ximorra taldeak ere bertsoak kantatzen zituen punk erara. Uztarketa horretan Bap! eta Ximorra lehenetakoak izan ziren.

Dudarik gabe, Gaztetxea bera bai izan zen aitzindaria: 80eko hamarkadan ez zen batere ohikoa gaztetxe batean bertso saioak antolatzea, eta Andoainen, 1985eko azaroan antolatu zuten lehendabizikoa, eta gainera, bertso saio horren kronika egin zuten “Pestea” izeneko fanzinean. Beraz, bertsoa gaztetxeen girora ekartzen lehen esperientzietako bat izan zen Andoaingoa, eta bertsoak fanzineetara ekartzen, bakarra.

Aurkezpena Gaztetxe zaharreko lagunekin eta orduko musika taldeetako kideekin egingo duzu.

Hiruzpalau aurkezpen egin nago han eta hemen, baina Andoaingoa berezia izango da. Izan ere, nik liburuan kontatzen ditudan gauza batzuk lehen pertsona bizi izan zituzten lagunak hor izango direlako.

Zure bizitzako bi zaletasun, musika eta bertsoa, Andoaingo Gaztetxe zaharrean topatu zenituen.

Ez dut gezurrik esango: askoz harreman handiagoa izan dut musika munduarekin bertso munduarekin baino. Andoainen sekulako taldeak aurrez aurre ikusteko aukera izan genuen. Eta bertsolaritza ere asko interesatu zait.

HAU ERE BADUGU!

Irudi ikusgarriak ibaien ertzean jarrita



Joan zen asteko euriteak alerta piztu zuen eskualdean. Ez zen, ordea, ezbeharririk izan. Irudi ikusgarriak utzi zituen, eta sarean hainbat daude ikusgai. Askoren artean, @argindar eta @nerea_hernandez twitter erabiltzaileak.



Euri kontuak eskualde osoan



Maito65 instagram erabiltzaileak Goiburuko errepedeko irudi ikusgarria atera zuen. Behean, Ernaitza liburu-denda uholde egoerarako prest.



ITURRI ONETIK

Kanpaina

Santakruzak gainean dira eta Andoaingo Udala eraso sexistak saihesteko kanpaina prestatzen ari da. Sentsibilizazio lan handia egiten ari dira erakunde ezberdinak, alor horretan, eta eskualdean ere udalak lehen lerroan ipintzen ari dira. Andoaingo Udalaren kasuan, gainera, kanpaina auzo eta herriko festa guztietara zabalduko dute. Udaberria iritsita, Santakruzak gainean dira. Iraila bitarte jaiak han eta hemen ospatuko dira Andoaingo auzune guztietan. Eraso sexistei aurre egitea lehenetsuzkoa bilakatuko da.

GORA ETA BEHERA



Jokabide ulergaitza Garbigunea bertan dugunean

Argazkiak Txistoki pasealekuan aterata daude, Gurutze Gorriko etxolaren atzealdeko eskilaretatik ikus daitezkeenak. Bertan propio botatako tresneria da, besteak beste, inprimagailu digitala edota lanpara. Andoaindar batzuren jokabidea ulergaitza da, Garbigunea herrian bertan dugunean. Sentsibilizazioan sakontzen jarraitu beharko da.





Iker Elgarresta, Lander Cia eta Josu Gines urnietar gazteak Gure Esku Dagoko ekimenean, joan zen ostiral arratsaldean. AIURRI

250 urnietar behar dira ekaineko giza-katerako

Gure Esku Dago ekimenak Donostia, Bilbo eta Gasteiz hiriburuak lotuko ditu ekainaren 10ean, giza-katearen bitartez. Herritarrei guztiaren berri emateko informazio karpa jarri zuten Zaldundegi plazan, joan zen ostiralean

Olatz Lasa URNIETA

Ehun mila pertsona inguru behar dituzte Donostia, Bilbo eta Gasteiz batzeko. Denera 201,9 kilometro osatuko dituzte eskuz-esku. Urnietarrek kilometro erdia bete beharko dute Aginagan (Usurbil), eta horretarako 250 lagun behar dituzte. Pasa den ostiralean egin zuten lehen agerraldi publikoa Urnietako Gure Esku Dago ekimeneko kideek. Informazio karpa jarri zuten Zaldundegi plazan ekainaren 10ean burutuko den ekimenaz informatzeko. Izena ematen duen pertsonak Gure Esku Dago mugimenduari atxikimendua adierazten dio, eta era berean, erabakitze eskubidearen aldeko jarrera erakusten du. Bost euroko kostua du izena emateko, eta ordainetan zapia jasoko da, giza-katean erabili beharko dena. Bestalde, kamisetak erosteko aukera ere egon zen. Arratsaldea girotzen Txanbolin txistulari taldekoak aritu ziren, kalejiran.

Urnietako Gure Esku Dago taldea martxan jarri da

Lander Cia Urnietako Gure Esku Dago ekimeneko kideak adierazi duenez, "guztiok elkarrekin egin beharreko ekintza da giza-katea. Berdin da zein alderdi politikoetakoak garen, denok elkartu eta gure eskubideak aldarrikatu behar ditugu".

Urnietarrak giza-katean izena ematera animatzeaz gain, bestelako helburu bat ere badu Gure Esku Dago. "Euskal Herriko herri guztien artean 2019 arrazoi bilatuko ditugu, herritarrok egin nahi ditugun aldaketak erakusteko", azaldu du Iker Elgarresta Urnietako Gure Esku Dago ekimeneko kideak.

"DENOK ELKARREKIN EGIN BEHARREKO EKINTZA DA GIZA-KATEA"

LANDER CIA. URNIETA



Hurrengo hitzorduak

- Apirilak 21: San Juan plaza, 18:00-21:00.
- Apirilak 27: Guria taberna ingurua, 18:00-21:00.
- Maiatzak 4: Xauxar taberna ingurua, 18:00-21:00.



Urnietako Eguzkitan blai udalekuan pijama festa ospatzen, iaz. URNIETAKO UDALA

Urnietako udaleku irekietan hezitzaile aritzeko deialdia

Apirilaren 23an hasi eta maiatzaren 4an amaituko da hezitzaile gisa izena emateko epea

Erredakzioa URNIETA

Eguzkitan blai udaleku irekietan hezitzaile izateko Urtxintxaren lan poltsan eman behar da izena, ondorengo linkean: lanpoltsa.urtxintxa.eus.

Bi pausu jarraitu behar dira izena emateko. Lehenik, aipatutako estekan sartu eta erabiltzaile berri bat sortu; ondoren, lan poltsan eskatzen diren atalak bete, Curriculum Vitae-ri dagozkionak. Bigarrenik, lan poltsa horretako lan eskaintzetan Urnietako udaleku irekietan lan egitea hautatu. Aurrez Urtxintxan lan poltsan izena emanda egonez gero, berriro nahi diren atalak osatzea nahikoa da.

Hezitzaile izateko derrigorrezkoa

Hiru prozesu igaro beharko dira Urnietako udaleku irekietan hezitzaile izateko:

1 Hautaketa prozesua gainditzea:

maiatzaren 4an 18:00etan Arantzubiko eraikinean egingo den talde elkarriketan parte hartuko dute. Talde elkarriketa gaintzen dutenen artean hautatuen zerrenda osatuko dute.

2 Asteburuko prestaketa:

Ekainaren 15ean eta 16ean prestaketa asteburuan parte hartu beharko dute Pasaiaiko Arrokaundieta aterpetxean. Ekainaren 15ean 17:00etatik 21:00etara izango da prestaketa saioa. Hurrengo egunean, berriz, 09:30etatik 14:00etara eta 15:30etatik 19:30etara.

3 Guraso bilera:

Hautatuek ekainaren 18an 18:00etan gurasekin egingo den bileran parte hartu beharko dute.

Informazio gehiago urnietakoudala@urnieta.eus edo lanpoltsa@urtxintxa.eus.

Arreta zerbitzu berria

Udalak, mendekotasun maila txikia duten herritarrei begira, epe laburrean zerbitzu berria martxan jartzeko asmoa du. Plazido Muxika plazan dagoen jubilatuen egoitzako eraikinean eskainiko litzateke zerbitzu hori, astean zehar goizero 3 orduz. Interesatuta egon edo informazio gehiago jaso nahi duenak udaletxera jo dezake. Telefono zenbakia: 943 00 80 00.



Parkeak estaltzeko parte-hartze prozesua

Andoaingo Udalak apirileko azken astean abiaraziko duen prozesuaren bitartez, herritarrek zein haur parke estali erabakitze aukera izango dute. Deialdiak ikusmin handia piztu du herrian, bereziki haur txikiak dituzten familiengan



Hernandez (Ganemos), Mourinho (Irabazi) eta Zulueta (EH Bildu) kanpainaren aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Amaia Senperena ANDOAIN

Andoainen herriko parkeak estaltzeko ekimena martxan jarri dute. Udalak iragarri modura, 2018ko aurrekontuaren zati bat herriko parkeak estaltzeko bideratuko da. 200.000 euro, zehazki. Eta herriguneko zein parke estali? Bada, Udalak herritarren parte hartzearekin hartu nahi du erabakia. Jon Zulueta gobernu taldeko bozeramaileak prentsaurrekoan adierazi zuen moduan, "Andoainen parte-hartze prozesu bat egiten den lehenengo aldia da. Prozedura simple batekin, prozesu ahalik eta parte-hartzaileena egin nahiko genuke"

Datorren astean, apirilaren 23tik 27ra, bozkalekua ipiniko dute udaletxeko beheko solairuan dagoen Ataria arreta zerbitzuan. 16 urtetik gorako andoaindarrek botoa eman ahal izango dute. Goizez, egunero, 08:30etik 14:00era. Arratsaldez ere, asteartetik ostegunera, 16:00tik 19:00era.

Andoaingo bi eremuak kontutan hartzen dituen bozketa sistema

Parkeen aukeraketari dagokionez, herriko parkeak bi bloke ezberdinetan banatu dituzte. Eta herritar bakoitzak gehienez ere bloke bakoitzeko parke bana aukeratu ahal izango du. Eremuaren araberrako sailkapena-

Ikusmin handia


Udalak deitu duen parte-hartze prozesu berria ikusmin handia piztu du Andoainen, bereziki haur txikiak dituzten familien artean. Bolo-bolo dabilen kontua da, eta hainbat sare sozialetan dagoeneko herritarrak euren iritzia agertzen ari dira. Astelehenean hasiko da botoa emateko prozesua.

rekin, Andoaingo Udalak parke bat baino gehiago estaltzen badira herrigune osoa kontutan hartzea ziurtatu nahi du.

Behin boto guztiak jasota, botoen zenbaketari ekingo diote. Apirilaren 27an izango da udaletxeko pleno aretoan, arratsaldeko 15:00etan hasita. Ekitaldia irekia izango da, beraz, edonork bertaratzeko aukera izango du.

Botoen zenbaketaren ostean, botoen kopurua kontutan hartu eta parkeen ranking modukoa egingo dute. Udalak adierazi duenez, "ondoren parke bakoitza estaltzeak izango lukeen aurrekontuak eskatuko dira. Udalak ekimen honetara bideratu duen diru kopuruaren arabera, hurrenkeraren arabera estaliko diren parkeak aukeratu dira". Udalak prozesu honetan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak. Horrelako prozesuak, arrakasta izanez gero, etorkizunean beste prozesu batzuetan erabil daitezkeelako.


Egunean eguneko albisteak sarean



Flauta topaketa Basteron



Oroituz ekitaldia Alfaro parkean



Jokin Lizeagari harrera



Euritea Andoainen



Goienako Iban Arantzabal, Eusko Jaurlaritzako Esti Alkorta eta Andoaingo Udaleko Ainara Rodriguez eta Patxi Baztarrika aurtengo kazetaritza sarien aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Amaia Senpereia ANDOAIN

“30 urte 10 mugarri” izango da aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren goiburu nagusia. Sariekin batera, euskarazko kazetaritzak egin duen bide oparoa ospatzeko eguna izango da. Ainara Rodriguez Andoaingo euskara zinegotziak eta sariketako epaimahaiburuak prentsaurrekoan aipatu bezala, “Euskarak hedabideen munduan azken lauzpabost hamarkadatan egin duen jauzia eta euskarazko kazetaritzak Rikardo Arregi sariaz geroztik egin duen aurrerakada saritu nahi dugu”. Horretarako, azken urte hauetan aitzindari, erreferentzia nagusi, bidegile edota bide erakusle izan diren hamar mugarri aitortu eta saritzea izango da aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren helburu nagusia.

Udal ordezkariak prentsaurrekoan erantsi bezala, “Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak gaur egungo kazetaritza moldeetara egokitu behar du. Beti ere ohiko kazetaritzari bizkarra eman gabe. Hedabideek xede nagusi bezala beti izan baitute informazioa eta entretenimendua landu eta jendarteratzea”. Hori horrela, Esti Alkorta Eusko Jaurlaritzako euskara zuzendaria argi du aurtengo sariketarekin lortu nahi dutena; “Aurtengo edizioan orain arte euskarazko kazetaritzan egindako bidea saritu eta horrekin batera etorkizuna hauspotzeko baliatu nahi dugu”.

Kazetaritza sari eraberrituta

“30 urte 10 mugarri” izango da aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren goiburu nagusia. Sariekin batera, euskarazko kazetaritzak egin duen bide oparoa ospatzeko eguna izango da. Udazkenean izango da sari banaketa ekitaldia

Iaz saritua izan zen Goiena telebistako 'Kulturizketak' saioaren izenean, prentsaurrekoan izan zen Iban Arantzabal Goienako zuzendaria nagusia. Rikardo Arregik berak behin aipatu omen zuen bere nahietakoa aurrekoarekin apurtzea zela, eta hori aintzat harturik, telebista saioarekin antzeko zerbait egin nahi izan zutela aipatu zuen.

Aurtengo lehiaketaren oinarri nagusiak

Azken hamarkadako euskal kazetaritzan une jakin batean aitzindari edo mugarri izan den oro saritzea da xede nagusia. Pertsonak, hedabideak, ibilbideak, sustapen lanak, erremintak edota kazetaritza-lan erreferentzialak izan direnak. Alkorta aipatu bezala, “ezinbestekoa izan da euskarazko komu-

nikazioaren lana euskararen biziberritze prozesuan. Hainbat eragile, kazetari, gidoilari edota euskaltzaleren ekarpena saritu nahi dugu aurtengoa. Lan oparo hori benetan eraginkorra izan baita euskara dagoen tokian egon dadin”. Horrez gain, Rodriguezek gogorarazi zuenez, egun kazetaritza “ez da prentsa idatziko erredakzio edo irrati eta telebistako estudio eta plaoetara mugatzen. Baina horrek guztiak hor jarraitzen du, eta hor egiten den lanaren bikaintasuna saritzen jarraitu behar du datozen urteetan ere Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak”.

Sarituen aukeraketan parte hartzeko modua

Sariak erabakitzeke epaimahaia osatu dute. Hauexek izango dira edizio berezi honetako partaideak: Miren Azkarate, Jose Inazio Basterretxea, Allende Boutin, Aingeru Epaltza, Elixabete Larrinaga, Jon Unanue, Arantxa Urretabizkaia eta Aitor Zuberoitia. Ainara Rodriguez izango da mahaiburua, eta udaleko euskara zerbitzaburu Patxi Baztarrika idazkaria.

Edonork proposa ditzake sarituen izenak izan daitezkeen hamar mugarriak. Horretarako, proposamenak eta aukeraketaren zergatia emailaz bidali behar da, ekainaren 15a baino lehen, euskarazerbizua@andoain.eus helbidera. Ondoren, mahaikideek proposamen guztiak aztertuko dituzte.



Maiatzean webgune ofiziala bistaratuko dutela aurreratu zuten. AIURRI



NIRE USTEZ

LEIRE ESNAOLA ORBEGOZO URKI DANTZA TALDEA

Urki dantza taldearen XXX. urteurrena

“Mugimenduen bidezko espresio fisikoa, harremanen, sentimenduen eta ideien erritmoa”. Duela pare bat hilabete, hitz potolo horiekin definitu zuen dantza Ken Robinson idazle eta hizlari ezagunak 2016an emandako hitzaldi baten harira.

Erritmo hori eta belaunaldiz belaunaldi urteetan zehar gordetako euskal dantzak ikasteko eta irakasteko helburuarekin sortu zen Andoainen Urki dantza taldea duela hogeita hamar urte.

Herrian zeuden dantza taldeetako dantzariak elkartzuz, 1988an ospatutako Euskal Jaialdian jaio zen eta aurrerantzean, ehundaka neska-mutil andoaindarrek euskal dantza tradizionala bereganatu dute herriko zein kanpoko festa eta ekimen ugaritan eskaintzeko.

Hasieratik irakasleen konpromisoa eta baita familiena, ikastetxeena eta Udalarena ere bidelagun izan ditugu. Ezin ahaztu ere txistulariak eta musikariak. Eta nola ez, ibilbide honetan zehar ondoan izandako hainbat elkarte eta herritar.



Urki dantza taldeko erromeria 2013. urtean, taldearen XXV. urteurrenean.

Euskal Herriko hainbat txokotan izan gara urte hauetan guztietan. Ekimen eta jaialdi ugaritan parte hartu dugu dantzak irekitako ateak zeharkatuz. Inguruko mugetatik haratago, Polonian eta New Yorken izan ginen, gure kulturaren ondarea munduko txoko batzuetan erakutsiz.

Andoainen bertan, herriko ondare diren Soka-dantza eta Ezpata-dantza berreskuratu eta parte hartzaile izan gara. Izan ere, 2008. urtetik aurrera, J.A. Urbeltz, Iñaki Arregi eta

beste askoren laguntzarekin maiatzaren 3an usadio bilakatu den Ezpata-dantza ospatzen hasi gara Santa Krutz ermitaren inguruan.

2003az geroztik 16 urtetik gorako gazteei bidea ireki eta helduen taldea sortu genuen. Bide oparo horren adibide dira egun taldean ditugun hiru irakasleak.

30 urte utzi ditugu atzean. Urki dantza taldearen izenean, eskerrik asko bidelagun izandako guztiei. urrerantzean datozen urteetan ere dantzan jarrai dezagun!



Antolaketa jardun duten Gora Kale Txikiko txarangako zenbait kide: Aingeru Zabala, Joxeramon Berrondo, Xabi Ibarguren, Jesus Ibañez eta Luciano Uribesalgo.

Txaranga doinuek alaituko dute Andoain, larunbat honetan

'Txarangatzen' ekimenaren sustatzailea Gora Kale Txiki izan da. Txaranga ugari hurbilduko dira herrigunera

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako zazpi txaranga Andoingo kaleetan barrena ibiliko dira, larunbatean: Deiadar (Errenteria), Gautxori (Lasarte-Oria), Oria (Tolosa), Urumea (Hernani), Talai Mendi (Orio) eta Tximeletak (Donostia) eta bertako Gora Kale Txiki. Ez ohiko musikarien topaketa osatuko dute, eta normalean musika iristen ez den Andoingo auzo eta kaleetan txarangek berarekin dakarten festa giroa zabalduko dute. 12:00etan Bastero plazan bilduko dira, ekitaldiari hasiera emanez.

Bertan, Joxe Mari Oizartabalek Txarangatzen topaketari begira espreski sortu duen abestia interpretatuko dute guztiek. Ondoren, nork bere bidea hartuko du. 14:00etan, Leizaran jatetxean bilduko dira guztiak, bazkaltzeko. Txarangek kalean zehar dabiltzala, partaideek hamaiketakoaz gozatzeko aukera edukiko dute zenbait elkarte gastronomikotan. Aldi berean, Salkinek bultzatuta, pintxo pote berezia izango da. Aurreko egunetan dendetan erosleek txartelak eskuratu ahal izango dituzte, larunbatean erabiltzeko.

Flauta doinuak Basteron

Bergara, Andoain eta Loatzoko Musika Eskoletako flauta jotzaileek erakustaldi ederra eskaini zuten Basteroko auditorioan, joan zen igandean. Taldeka hainbat pieza eskaini eta gero, amaiera aldera guztiak elkarrekin aritu ziren. Orora, pieza modernoak eta klasikoak eskaini zituzten: Abba, Bach, Tchaikovski... Saioko bideoa Aiurri.eus gunean ikusgai dago.



Ez dituzte ahaztu nahi

Jon Urtasun eta Ekaitz Ollok txalapartaren hotsez ekitaldia hasteko deialdia egin zutenetik hasita, emozio handiko une ugari bizi izan ziren Alfaro parkean. Oroituz elkarteak, beste behin ere, frankismoak zapaldu zituen biktimak gogoan hartu zituen

Erredakzioa ANDOAIN

Urki taldeko Joxema Setien txistulariak eta Unai Barrutia dantzariak biktimen aldeko aurrerakua dantzatu zuten. Hogeita bost eraildako eta desagertuen eta gainerako biktimen aldeko lore-eskaintza eginez jarraitu zuten gero, Aran Mujikaren biolinaren hotsak lagunduta. Hainbat lagun hurbildu zen *Goiztirian* eskulturara, loreak uztera. Ion Belokik bertsoa kantatu ostean, bi hizlariaren txanda heldu zen. Oroituz taldearen izenean, Lurdes Arteagak frankismoaren aurkako Argentinako kereila izan zuen hizpide ekitaldian. Poza adierazi zuen Andoaingo Udaleko alderdi guztiek, aho batez, kereila horretan pertsonatzea erabaki dutelako. Gaineratu zuen Oroituz elkarte kereilan aurkeztu beharreko txostena osatzen ari dela, eta horretarako agiri eta testigantza pertsonalak biltzen ari dela 1936-1977 epealdi historikoa jorratuz.

Gasteizko gonbidatuak aurtengo ekitaldian

Gasteizko 1976ko gertakari mingarriek aparteko tokia hartu zuten ekitaldian, eta horrela, Martxoak 3 elkarte hiru kide, Nerea Martinez, Jose Luis Martinez eta Andoni Txasko hurbildu ziren Andoaingera.



Urtero-urtero dozenaka lagun hurbiltzen dira Alfaro parkera, 1936ko Gerrako biktimen aldeko ekitaldira. AIURRI

Berriki, Epaitegi Konstituzionalak atzera bota du Gasteizko bost langileren hilketengatik eta ehunka zaurituengatik justizia eskatzen zuen kereila, baina horrek ez dituela kikilduko ziurartu zuen Nerea Martinezek: "Justizia eskatzen segiko dugu belaunaldiz belaunaldi, Estatu espainiarraren inpunitate eredu faxistarekin bukatu arte. Martxoak 3 elkartearen eginkizuna ez da mugatzen 1976an eraildako langileentzat justizia aldarrikatzera, baizik eta 1936ko kolpetik hona egon diren giza urraketa guztiak salatzen ditugu". Banda Errepublikanoaren musika ema-

naldia heldu zen ekitaldiaren bigarren zatian. Urtero legez, borroka kantak interpretatu zituzten (*A las barricadas, Ekaitza, Justizia denontzat, 15. Brigada...*), eta kanta berria gehitu diote errepertorioari: Lluís Llachek Gasteizko gertakari bortitzekin hunkituta osatu zuen "*Campanades a morts*" kantu ezaguna.

"JUSTIZIA ESKATZEN JARRAITUKO DUGU, BELAUNALDIZ BELAUNALDI"

NEREA MARTINEZ, MARTXOAK 3



Gasteizko Martxoak 3 elkarte kideak izan dira aurtengo gonbidatuak. AIURRI



Gasteiztarren omenez Lluís Llachen *Campanades a morts* abestu zuten. AIURRI



Musika Banda Errepublikanoak kalejira egin zuen herrian barrena. AIURRI

Hildakoei eta gainerako zapalduari omenaldia



Nemesio Fernandez, eraildako Andoaingo aguzilaren senideak.



Rafael Benitez, Extremaduran fusilatutako baten anaia. AIURRI



Gloritxu Igarategi, 1936an Andoaingik erbesteratutako bat. AIURRI



Miren Barkaiztegi, aitona eta osaba fusilatutak. AIURRI



Pio Arzallus eta Bonifacio Aldaz, herriko bi fusilatuen senideak. AIURRI

Arizmendi eta Pikabea, larunbatean egur betean

APUSTUA Rosario Pikabea hernaniarraren eta Jon Arizmendi andoaindarraren arteko desafioa Galarreta ondoko Jauregi jatetxeko zelaian izango da larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera

Erredakzioa BURUNTZALDEA

Egin beharreko lanak hauexek izango dira: aizkoran 45 ontzako lau enbor eta bi kanaerdiko, eta lasterka, 7 kilometro (70 itzuli 100 metroko eratzunari).

Aiurrik Jon Arizmendiarekin asteartean egin zuen hitzordua Merdilegi baserrian, Goiburu auzoan. Aizkorarekin saioa egiteko asmotan zebilen: “Gaur egingo dut azkeneko saioa. Larunbatera fresko iritsi nahi dut; azken egunetan egiten direnak ez dute askorako balio, kalterako gehiago igual”. Apustua iristeko gosez zegoela aitortu zigun. “Plazara ateratzeko sasoi onean nagoela esango nuke. Motibazio aldetik, astez aste goraka egin dut. Izan ere, orain bi hilabete eta erdi, korrika gorputza gehiegi behartu eta errenka itzuli nintzen etxera. Hiru asteko etenaldia edukinuen prestakuntzan; beldurra sartu zitzaidan gorputzean, eta apustua lotzeko egunean ere halaxe joan nintzen Jauregi jatetxera, minduta eta pixka bat ezkor. Nolanahi ere, eskerrak eman behar dizkiot nire neska lagunari –Miren Altuna–; fisioa da eta bere eskuek miraria egin dute. Ez daukat aitzakiarik. Prest nago”.



Jon Arizmendi andoaindarra, desafioko protagonistatoka.

Badauka bigarren arrazoia neska lagunarekin esker oneko egoteko: “apustuaren kontuak tentsioan jartzen zaitu, eta izaera ere aldatzen dizu. Mirenek aitortu izan dit erretxin samarra sumatzen nauela”.

Pikabea ala bera, nor ikusten duen irabazle galdetuta, zera dio: “Argi daukat aizkoran atara beharko diodala abantaila, jai daukat gainerakoan. Lasterka bera bizkorragoa da; hogeiki kiloko diferentzia daukagu, eta ez da alferrikako kontua korrika!”.

Apustua, ikuskizun

Inguruan desafioa zer esana ematen ari dela adierazi du Arizmendik. “Herri-kirol proba polita ikustera eta ni animatzera doazela esaten didate denek. Pikabeak ere adierazi dit bere inguruko jendea azalduko dela. Ederra litzateke saltsa pixka bat sortzea lortuko bagenu, herri kirolaren mesedetan”.

Kezka bat darabil buruan, nagusiki, jendearengan sortutako espektatibarik ez zapuztea”. Ion Beloki izango da frogako esataria.



Parte-hartzea geroz eta handiagoa da. ITURZAETA BATZORDEA

Iturzaeta pala txapelketa herrikoian izena-ematea zabalik

PALA Apirilaren 30era bitarte izena emateko aukera dago. Maiatzaren 12an abiatuko da aurtengo edizioa

Erredakzioa ANDOAIN

Iturzaeta pala txapelketa herrikoien edizio berria hastear da, baina hori baino lehen partaideek izena eman behar dute. Partidak Sorabillako frontoia jokatuko dira, larunbat goizez eta arratsaldez.

Izen-ematea

- iturzaeta.memoriala@gmail.com (email).
- 636 133 897 (whatsapp).
- Arrate pilotalekuan bertan izena eman daiteke. Parte-hartze handia eta giro ona izan ohi da Sorabillan.

Gipuzkoako Kopa abiatzear

ESKUBALOIA UKE taldeko Senior mutilek kategoriako txapelkun den Legazpi taldea garaituz agur esan zioten ligari (33-26). Senior neskek, maila ona erakutsiz, San Adrian taldearen aurka iguera faseko azken partida irabazi zuten (24-22). Gainerako taldeek lehiaketa berriari ekingo diote laister. Gipuzkoako Koparekin amaituko dute denboraldia.



UKE

Urnietarrak Tilos Pasa 7 txapelketan

PALA UKEko Jon Iruretagoiena-Xabier Pérez de Arenaza bikoteak Hernani garaitu zuen (22-19). Alde handiagoa lortu zuen Jon Iturbe-Xabier Pavon bikoteak Hernaniren aurka (22-8). Gomazko paleta senior mailakoek astelehenean jokatu dute, apirilak 23, arratsaldeko 19:15etik aurrera. Hernaniko bikotea izango dute aurkari.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA, SASKIBALOIA

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK

Urnieta-Legazpi	33-26
Aloña Mendi-Leizaran	25-29

ASTEBURUKO PARTIDA

GIPUZKOAKO KOPA

19:00 Urnieta-Ordizia / Lar, 21

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK 1-2 MULTZOAK

Urnieta-San Adrian (1. multzoa)	24-22
Leizaran-BM Romo (2. multzoa)	28-20

ASTEBURUKO PARTIDA

GIPUZKOAKO KOPA

-:- Urnieta-Bera Bera / Lar, 21

JUBENIL MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK

Leizaran-Elgoibar	19-18
Urnieta-Hettich	28-27

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00 Irun-Leizaran / Lar, 21

10:30 Ordizia-Urnieta / Iq, 22

JUBENIL MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZA

Tolosa-Leizaran 16-12

ASTEBURUKO PARTIDA

12:45 Leizaran-Ordizia / Lar, 21

GIPUZKOAKO KOPA

ASTEBURUKO PARTIDA

15:45 Urnieta-Ursbil / Lar, 21

KADETE MAILA, MUTILAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZA

Egia Indaux-Leizaran (1. multzoa)	35-37
Legasa-Leizaran Horia (B multzoa)	25-5

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00 Leizaran-Tekniner Eibar / Lar, 21

11:15 Leizaran Horia-Bergara / Lar, 21

GIPUZKOAKO KOPA

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15 Urnieta-Bidasoa Irun / Lar, 21

KADETE MAILA, NESKAK

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZA

Leizaran Horia-Ereintza 18-20

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Bergara-Leizaran Horia / Lar, 21

GIPUZKOAKO KOPA

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30 Leizaran Urdina-Ereintza / Lar, 21

10:45 Urnieta-Elgoibar / Lar, 21

SASKIBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Goierri-Ganbara 49-62

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Alde-Zaharra B-Ganbara / Iq, 22

KADETE MAILA

EMAITZA

Ganbara-Atletico SN 51-43

ASTEBURUKO PARTIDA

19:45 Ama Guadalu.-Ganbara / Lar, 21

Lizeagaren agerpena Mendi Film jaialdian


MENDIZALETASUNA “Ondo nago, istripu larria izan nuen baina miraria gertatu zen”. Jokin Lizeagak Sarobe antzokiko oholtzatik herrikideak lasaitu nahi izan zituen, eskertza adieraztearekin batera

Erredakzioa URNIETA

Mendi Film Festival jaialdiko lan ezberdinak eskaini zituzten ostiral iluntzean Saroben, eta bertan agerpena egin zuen Jokin Lizeaga mendi lasterkariak. Aitor Elduaien kazetariak gidatutako saioan, Lizeaga taula gainera igoarazi zuen eta bertan bildu ziren 120 lagunek txalo zaparradarekin agurtu zuten.

Apirilaren 8an Trail de las pastoras de Portudera Asturias aldeko mendi lasterketan izan zuen ezbeharrak hedabideetan eta trail munduan izan duen oihartzunaren jakitun, lasaitasunerako mezua zabaldu nahi izan zuen.

Hedabide ezberdinetan adierazpenak egin izanak on egin diola aitortu zuen: “Ondo etorri zait, barrenak hustutzeko. Ondo nago, sorbalda apurtuta daukat eta ia seguru da ebakuntza egin beharko didatela baina, tira, osatuko naiz”.



Jokin Lizeaga, apirilaren 10ean ateratako argazkian. ANDONI URBISTONDO

Eskertza

“Sufritu arazi dizuedala jakin badakit. Animo uholdea jaso dut aste honetan, telefono mezu guztiei erantzuten saiatu naiz eta jakin badakit ingurukoei deitu edota nigatik galdetu die-

zuela. Eskerrik asko guztiei. Ondo nago, espero dut mendiaz gozatzen jarraitzea eta aurretik ez zuten elkar ikusiko dugu. Mendian bada, hobeto!”. Adierazpentxo amaituta, txalo zaparrada jaso zuen urnietarrak.



AIURRI

Euskaldunaren Ibilbide neurtua

MENDIZALETASUNA Azken egunetako eguraldi kaskarra ikusita, antolatzaileak eta parte hartzaileak pozarren egon daitezke igandeko eguraldiarekin. Fresko baina ateri, eguerdira bitarte mendiaz gozatzeko aukera aparta izan zen. Familian, lagunartean edota bakarka, ondo baino hobeto baliatu zuten Euskaldunak eskainitako aukera hori. Ondarreta ikastetxean ipinita zegoen helmuga, eta bertara iritsi ziren gehientsuenak pozarren agertu ziren.

Euskaldunak, gainera, hamaiketako ederra eskaini zien bertaratu zirenei. Familia giroan ibilbide laburra egin zuten batzuk, eta beste askok ibilbide ertaina edota luzea. Ibilbide neurtua 'Zirkuitoa' izeneko egitasmoan sartuta zegoenez, Gipuzkoako eta Euskal Herriko bisitariak hurbildu ziren Andoinera. Denek ere herriko eta inguruko herrietako mendialdeaz eta paisiaiaz gozatzeko aukera izan zuten. 516 parte-hartzaile izan ziren guztira.

"Igeriketa bizitzeko modua da niretzat"

IGERIKETA Udaberriko Espainiako Open txapelketan marka pertsonala hobetzea lortu du Mikel Esnal andoaindarrak. Malagan izan zen, joan zen apirilaren 7tik 11ra bitarte. Estatuko eta atzerriko seihun igerilari inguruk hartu du parte bertan

Olatz Lasa ANDOAIN

Marka pertsonala hobetzea lortu duzu 50 tximeleta proban, Espainiako Txapelketan 26,41ekoarekin. Gustura, egindako lanarekin?

Gustura bai, baina era berean sentsazio gazi-gozaorekin. Iaz igeriketan geldialdi txiki bat egiteko erabakia hartu nuen, eta denboraldia lehiatu gabe igaro nuen. Urtarrilean ekin nion gogor entrenatzeari; lau egunetan uretan, eta beste hiru egunetan gimnasioan. Helburua nire marka onenaren denbora jaistea zen, eta baita nire burua lehiatzeko gai ikustea ere. Ikusita 3-4 hilabete entrenatuta joan naizela Espainiako Txapelketara, pozik nago lortutako emaitzarekin. Gustu handiz hartzen da marka jaistea. Aurreko marka hoberenak denboraldi gogor eta momentu on batean harrrapatu ninduen, eta marka hori haustea, egon naizen egoeran, egonda oso pozgarria da.

Estatuko eta atzerriko igerilari handienak biltzen ditu Espainiako Txapelketak. Maila handiko txapelketa beraz...

5 eguneko konpetizioa izan da. Estatu mailako 600 igerilari hoberenak izan dira bertan junior, absolutu eta absolutu gazte mailan. 50 tximeleta proban 45 igerilari inguru ginen.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Espainiako mailan lehiatzea pozgarria da. Aurretik egonda nengoen, orain dela bi urte edo. Estatu mailako igerilariak ikusten dituzu maila mundialean, europarrean edota olimpiadetan lehiatu direnak. Jende oso ona dago bertan.

Fisikoki prestatzeaz gain, psikoki ere entrenatu beharko da...

Gipuzkoako edota Euskadiko Txapelketak izan dira gehien prestatu ditudanak, eta oso urduri jarri naiz bietan. Presio handia jartzen diot nire buruari. Aurten lehiatzera bai, baina batez ere disfrutatzera joan naiz.



Mikel Esnal igerilari Udaberriko Open Espainiako Txapelketatik bueltan. AIURRI

Ikasketek eta lanak kentzen dizute entrenatzeko denbora gehiena. Zeini ematen diozu lehentasuna antolatzerako orduan?

Txandakako ingeniari itxarri ari naiz Elgoibarko Makina Erreminta eskolan. Lana eta ikasketak uztartzeko modua dut era horretan. Aurreko urteetan lehentasuna igeriketak izan du, baina egun ikasketek hartu dute lehentasuna. Hala ere, ez dut igeriketa alde batera utzi nahi. **Zer darabilzu orain eskuarteetan?** Orain egunean eguneko bizi, egutegia begiratu eta uztailan

diren udako Espainiako txapelketari begira jarri naiz. Nire gorputzak nola eboluzionatzen duen ikusi, eta nire burua gai ikusten badut lehiatuko naiz. Eta, noski, Borja Apeztegia entrenatzaileak ere ondo ikusiz gero, konfiantza ematen dit.

Igeriketak asko eman dit, eta gauza asko erakutsi dizkit: disziplina, sakrifizioa... ikusi dut gauzak lanetik datozela... Nire bikotea ere uretan ezagutu dut. Nire bizitzeko modua izan da, eta etorkizunean ere horrela izatea nahi dut.

KARTELDEGIA: FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Trintxerpe-Euskalduna	2-5
Mariño-Urnieta	0-1

SAILKAPENA

1 Deusto	59 puntu
2 Allerru	57 puntu
3 Euskalduna	54 puntu
9 Urnieta	32 puntu
10 Martutene	31 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:45 Euskalduna-Ostadar / Lar, 21

18:00 Urnieta-Hernani / Lar, 21

ERREGIONAL MAILA, KOPA

EMAITZA

Euskalduna-Allerru	3-1
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Euskalduna	21 puntu
2 Mundarro	18 puntu
3 Sporting Herrera	15 puntu
5 Trintxerpe	13 puntu
6 Allerru	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Landetxa-Euskalduna / Lar, 21

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA

Eibar-Urnieta	1-1
---------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta-Anaitasuna / Lar, 21

JUBENIL MAILA, MUTILAK

EMAITZAK, IGOERAKO LIGAXKA

Urnieta A-Beasain	1-0
Euskalduna A-Beti Ona B	3-0

SAILKAPENA

1 Euskalduna A	29 puntu
2 Beasain	28 puntu
3 Urnieta A	24 puntu
4 Allerru A	21 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:30 Beti Ona B-Urnieta A / Ig, 22

17:30 Danena-Euskalduna A / Lar, 21

EMAITZA, KOPA

Urnieta B-Euskalduna B	1-2
------------------------	-----

SAILKAPENA

1 Billabona	30 puntu
2 Euskalduna B	22 puntu
3 Idiazabal	18 puntu
4 Ordizia	13 puntu
5 Segura Goierri	9 puntu
6 Urnieta B	6 puntu
7 Lazkao	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

18:00 Lazkao-Urnieta B / Ig, 22

15:30 Euskalduna B-Goierri / Lar, 21

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA

Añorga-Euskalduna	10-0
-------------------	------

SAILKAPENA

1 Añorga	36 puntu
2 Goierri Gorri	31 puntu
6 Hernani	15 puntu
7 Euskalduna	10 puntu
8 Amara Berri	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

21:30 Euskalduna-Goierri Gorri / Lar, 21

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZA, OHOREZKO MAILA

Euskalduna-Ostadar	1-3
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Antiguoko	68 puntu
2 Baskonia	64 puntu
7 Astigarragako Mundarro	40 puntu
8 Euskalduna	37 puntu
9 Sanse	36 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Mundarro-Euskalduna / Ig, 22

EMAITZAK, KOPA

Sanse A-Urnieta (4.multzoa)	2-0
-----------------------------	-----

Euskalduna-Ordizia (7.multzoa)	1-2
--------------------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Urnieta-Añorga / Lar, 21

15:30 Tolosa-Euskalduna / Lar, 21

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Mutriku-Urnieta	8-0
-----------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

10:30 Urnieta-Zarautz / Lar, 21

KARTELDEGIA: ARETO FUTBOLA

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

Egarrri-Euskalduna	5-4
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Hirukide	52 puntu
2 Tolargi	48 puntu
3 Oiartzun	42 puntu
4 Herrikide	40 puntu
5 Euskalduna	36 puntu
6 Idiazabal	35 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Euskalduna-Lauburu / Lar, 21

ANDOAINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

A TALDEA

H. Extremeño-C. Extremeño	4-8
Akerbeltz-Txalaka	4-5
Lanbroa-Ekhia	2-8
Keler-Dad Kutxa	1-1

B TALDEA

Ekaitz-Pausoka	4-3
Powerade-Academia London	2-1
Gorostidi-Olajauna	8-0
Academia GF-Irunberri	3-3

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 19**ANDOAIN Hitzaldia**

Ainhoa Intxaurrendieta eta Igor Meltxor hizlari arituko dira, Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren inguruan.

Urigain, 18:30.

OSTIRALA 20**URNIETA Tailerra**

Komikigintza tailer praktikoa, Judas Arrieta marrazkilari ezagunarekin.

Gazte informazio puntua, 18:00.

ANDOAIN Tailerra

Europako Gazte informazio bulegoen egunean, "Zer da zuretzat Gazte Informazioa" txapa tailerra egingo dute.

Gazte lokala, 18:00.

ANDOAIN Ikuskizuna

Artxipiela goa bertsolaritza, musika eta proiektzioak uztartzen dituen: Ainhoa Garmendia, Andoni Egaña, Pello, Ramirez, Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal.

Bastero, 21:30. 12 euro.

LARUNBATA 21**HERNANI Desafioa**

Aizkora desafioa, Rosario Pikabea hernaniarra eta Jon Arizmendi andoaindarra buruz buru arituko dira.

Galarreta, 18:00.

URNIETA Ospakizuna

Poxta Zahar taldearen 15. urteurrena.

San Juan plaza, Sarobe.

ANDOAIN Ikuskizuna

Inozentiaren laborategia, dantza ikuskizuna familia osoarentzat. Goizeko 11:00etan tailer praktikoa, eta arratsaldean ikuskizuna ikuslego zabalarentzat.

Bastero, 17:00. 4 euro.

IGANDEA 22**ANDOAIN Ikuskizuna**

Urki dantza taldearen 30. urteurrenako ikuskizuna.

Bastero, 12:00.



AJURRI

ANDOAIN Peña Santakruz eta Herri Danborradaren entseguak

Santakruzak iristear dira eta bi danborrada prestatzeko entseguak iragarri dituzte. Datorren astean, biak ala biak, Leitzaran jatetxearen ondoko lokalean.

Apirilak 24, asteartea. 19:30, Peña Santakruz. 20:30, Herri Danborrada.

Apirilak 26, osteguna. 19:30, Peña Santakruz. 20:30, Herri Danborrada.

ANDOAIN Aurkezpena

Alberto Irazuren 'Rocka puntua!' liburuen aurkezpen ekitaldia.

Xehetasunak 5. orrialdean.

Gaztetxea, 18:00.

URNIETA Antzezlan

Zurriola antzerki taldearen eskutik, "Urtain" antzezlan euskaraz.

Sarobe, 19:00. 5 euro.

ASTELEHENA 23**ANDOAIN Bozketa**

Herriguneko zein haur parke estaltzeko parte hartze prozesua abiatuko du Udalak, apirilaren 23tik 27ra. Bozkaleku bakarra ipiniko dute.

Apirilak 23-27, Ataria.

ASTEARTEA 24**ANDOAIN Tailerra**

Dantza tailerra 5-8 urteko haurrentzat. Mintzalagunek antolatuta.

Arrate, 18:00.

ANDOAIN Entsegua

Peña Santakruz elkartearen danborrada prestatzeko entsegua.

Kaleberriko lokala, 19:30.

ANDOAIN Entsegua

Herri danborradaren entsegua.

Kaleberriko lokala, 20:30.

ASTEAZKENA 25**URNIETA Sari banaketa ekitaldia**

Antia literatur sariak.

Sarobe, 19:00.

OSTEGUNA 26**ANDOAIN Plenoa**

Udalaren osoko ohiko batzaraldia.

Udaletxea, 19:00.

OSTIRALA 27**ANDOAIN Boto zenbaketa**

Haur parkeei buruzko bozketa.

Pleno aretoa, 15:00.

ANDOAIN Erakusketa

"Loturak vs. lokarriak", Letamendi.

Bastero, irekiera ekitaldia. 19:00.

URNIETA Kontzertua

Lappa musika taldeak disko berria aurkeztuko du.


Sarobe, 21:30.

ZINEMA**ANDOAIN****BASTERO****Quando dejes de quererme**

Larunbata, 21: 19:30; 22:00.
Ig., 22: 19:30.
Astelehena, 23: 19:30; 20:00.

Lady Bird

Larunbata, 28: 19:30; 22:00.
Igandea, 29: 19:30.
Astelehena, 30: 19:30; 20:00.
Peter Rabbit
Lar., 28: 17:00.
Ig., 29: 17:00.

**URNIETA****SAROBE****El hijo de Bigfoot**

Haurrentzat.

Ig., 29: 17:00.

LEKAI**Zine-foruma**

Astezk., 24: 19:00.

SINOPSI**Quando dejes de quererme**

Zuz.: Igor Legarreta. **Herr.:** Espainia (2017). **Iraupena:** 101 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Aitaren hilketa argitzea xede

Laura aitaordearekin bizi da Buenos Airesen. Aitak ama eta bera abandonatu zituelako joan

ziren hara. Egun batean dei bat jasoko du aitaren gorpua basoan aurkitu dutela esateko.

Lady Bird

Zuz.: Greta Gerwig. **Herr.:** Estatu Batuak (2017). **Aktoreak:** Saoirse Ronan, Laurie Metcalf, Lucas Hedges... **Iraupena:** 94 min.

Ikasketak hiri kosmopolitan egitea

Christine Kaliforniara joango da familiarekin institutuko azken urtea amaitzeko. Unibertsitatera sartzea da bere ametsa, bizi den auzotik irten eta hiri kosmopolitako giroan

murgiltzeko. Baina, lehenik, amarekin duen harremana aurrera eramaten ikasi beharko du, aita lanik gabe geratu ostean bera baita familia mantentzen duena.

Antia literatur lehiaketa

Literatur lehiaketaren sari banaketa datorren apirilaren 25ean izango da, asteazkenarekin. Kattalin Ansorenak aurkeztuko du, eta musika eta dantza ikuskizunez girotuta egongo da. Ana Garcia piano-jotzailea, Kristina Solano trikitilaria eta Thierry Biskary abeslaria arituko dira, baita Aukeran dantza taldekoak ere.

Sari banaketa ekitaldia 19:00etan hasiko da, Saroben. Sari politik emango dituzte: Haurren kategoria: 1. saria: Tablet bat. 2. saria: Ebook bat. 3. saria: Ebook bat. Gazteen kategoria: 1. saria: 500 euro. 2. saria: 300 euro. 3. saria: 150 euro.


ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Oier Muñoz
Oierrek 6 urte beteko ditu apirilaren 19an. Zorionak eta ondo ospatu eguna! Etxekoak.



ANDOAIN
Haritz
Zorionak Haritz! apirilaren 20ean 13 urte beteko dituzu. Oso ondo pasa zure egunean. Ederki ospatuko dugu elkarrekin. Muxu handi bat etxekoan partez.



ANDOAIN
Pello
Badakizu Pitagorasentzat 7a zenbaki perfektua zela? Bada, zure 7. urtebetetzea ere perfektua izatea opa dizugu. Super ondo pasa dezazula zure egunean! Muxuak!!!



ANDOAIN
Ixiar
Ixiarrek urteak bete ditu apirilaren 19an, zorionak etxekoan partetik! Muxu potolo bat eta ondo ospatu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora.
Tel.: 943 300 732.

Whatsappez: 619 16 35 37

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 21 eta igandea 22
ARZALLUS: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 21 eta igandea 22
TENA: Nagusia, 16.
943 543 718. Astigarraga.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

Patziku Perurenaren azken lana
25 €

LEITZALARREKO UNAIK
1683-1771

Eskuratzeko:
bazkuna@larramendi.org
943 300 733 / 656 782 521
Aiurri: Arantzibia 4-5 behea. Andoain

SAIAKERA bildumako aurreko lanak ere eskuragai



Aparakalekua Txoritagainen

Urnietako Udalaren ekimenez, 90 aparkaleku publiko eraikiko dituzte Salesiar ikastetxetik gertu, Txoritagainen aldean. Lanak maitatzen hasiko dira, eta irailerako obra amaituta egotea espero dute. Proiektuaren obra lehiaketara atera zen, eta lanak egiteko ardura Sasoi Eraikuntzak enpresari esleitu diote.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak
Aiurri:
90 euro

**(Just)izia**

Joan zen larunbatean 60.000 lagun bildu ginen Iruñan, Altsasuko gazteei elkartasuna adierazi eta justizia exigitzeko. Inoiz egon naizen manifestazio pluralena izan zen, jende oso ezberdinak bete zituelako kaleak. Nahiz eta aldarrikapena bateratua izan –“Ez da terrorismoa, justizia, Altsasukoak aske”– horren atzean iritzien arteko pluraltasuna ere nabaria zen.

Manifestazioa bukatuta, Urnietara bidean, hausnartzeko beta izan nuen Guardia Zibilaren kontrola noiz aurkitu zain. Just-izia. Ingelesezt “just” hitzak “soilik” esan nahi du eta ez dakit, Altsasun gertatutakoa eta gero, ez ote garen arazoaren azalean soilik geratu. Justizia exigitu arren ez dakit ez ote dugun arazoaren muina ahaztu.

Guardia Zibila ez bazen Altsasun egon, ez zen tabernako liskarra deskontestualizatzeko betarik izango. Edozein herriko edozein tabernetan gertatutako liskar batean geratuko zen.

Arazoa Euskal Herrian hamarkadatan zehar bizi izan dugun egoera da. Altsasukoa abisu bat da. Euskal Herrian errepresioak bertan jarraitzen duela erakusten digun abisu bat. Askok ahaztu duten arren, aspaldiko mamuak bizirik eta gure artean jarraitzen duenaren abisua.

AZKENA

Poxta Zahar gazte elkartearen urteurrena

Hamabost urte beteko dira Poxta Zahar gazte elkarte Urnietan sortu zutenetik. Efemeridea dela eta, larunbaterako egun osoko festa antolatu dute. Kontzertuak, kirol-jarduerak, afaria, bertsoak... Giro ederra izango da nagusi

Erredakzioa URNIETA

Bertso-eskolari emango diote protagonismoa larunbateko festan. Bertso-eskolaren estreinaldia izango da 18:30etatik aurrera, eta bertan herriko bertsolariak eta eskolako ikasleek hartuko dute parte.

Arratsaldeko beste ekimen garrantzitsua erronka izango da. Poxta Zaharreko kide izan direnen eta egun direnen arteko norgehiagoka ikusteko aukera egongo da, 16:30etan hasita. Lear herriko musika taldea arduratuko da arratsaldeko giroa alaitzeaz, 19:00etan eskainiko duen kontzertuarekin.

Afari herrikoirako menua hau xe: pasta entsalada, albondigak eta sorbetea. Tiketak 10 eurotan daude salgai osteguna arte Xauxar, Kantoi eta Guria tabernetan. Afarira edalontzi berrerabilgarriak eramatea eskatu dute antolatzaileek. Ez duenak, euro batean eskura dezake egunean bertan.

Gauean hiru kontzertuz gozatzeko aukera egongo da 23:00etan hasita. Sad Mirri, Makal & Global Funk Sound System eta DJ Albabarruna. Saroben eta San Juan plazan izango dira kontzertuak.



Josu Gines eta David Cuenca Poxta Zahar Elkartearen kideak. AIURRI

Gainontzean, festa bere osotasunean plazan ospatuko da; eguraldi txarra eginez gero, Egape ikastolako jolastoki estalian.

Elkartera batzeko aldarria

Larunbateko festak mezu jakina darama atzean. Urnietako gazteak Poxta Zahar elkartera batzeko aldarria egin dute Josu Gines eta David Cuenca elkartearen ki-

deek: "Polita da orain hamabost urte sortu zen elkarteak oraindik ekimenak antolatzen jarraitzea, eta hori posible izaten jarraitzeko nahi duen oro elkartearen kide izatera gonbidatuta dago".

Egun 17 eta 23 urte bitarteko 6 kuadrila inguruk osatzen dute Poxta Zahar Gazte Elkartearen, eta ikasketak tarteko direla, jende

Egun osoko ospakizuna larunbatean

- 11:00** Hitzaldia.
- 13:00** Zunba.
- 16:30** Erronka.
- 18:30** Bertso-eskolaren estreinaldia.
- 19:00** Lear.
- 20:00** Sorpresa.
- 20:30** Afaria herrikoia.
- 23:00** Kontzertuak:
 - Sad Mirri.
 - Makal & Global Funk Sound System.
 - DJ Albabarruna.

Afarirako tiketak salgai:

- Xauxar.
- Kantoi.
- Guria.

Eguraldi txarrenekin Egapean ospatuko da festa.

gehiagoren beharrean aurkitzen dira urtean zehar ekimenak antolatzen jarraitzeko. "Gazte askok herrikit kanpo ikasten dute, eta elkartearen aktibitate mantentzeko jende gehiago behar da".

Hurrengo jaiak

Hilabeteren buruan gazte festak ospatuko dira, eta larunbateko eguna amaitzean, begirada horretan jarriko dutela adierazi dute. Uda amaitzean, San Migel jaiei emango zaie hasiera. Jai horiek prestatzen ere laster hasi beharko dutela adierazi dute.

